



## XXXI. Madalen Sariak

Madalen Sarien helburua Errenerian bizi direnen edo ikasten dutenen artean euskaraz idazteko ohitura sustatzea da.

### Parte hartzeko baldintzak

Errenerian bizitzea edota Errenerian Lehen Hezkuntzan, DBHn, Batxilergoan edo Lanbide Eskolan aritzea.

Euskaraz idatzitako lanak izatea.

Aurkeztutako lanak jatorrizkoak eta argitara eman gabekoak izatea.

Partaide bakoitzak lan bakarra aurkeztuko du, ordenagailuz idatzia, DIN A-4 neurrian eta lerroarte bikoitzean. Letra mota Arial edo antzekoa izango da, eta tamaina, 12.

Poesia sailean, 1. mailakoek 24 lerro idatzi beharko dituzte; 2. mailakoek, 32; eta 3. mailakoek, 40 lerro. Bertsolaritza lehiaketatik kanpo geratuko da.

Prosa sailean, gehienez 2 orrialde idatzi beharko dira.

### Sariak

Lanak honela sarituko dira:

<b>1. maila:</b>	<b>Lehen Hezkuntza (2. eta 3. Zikloak)</b>	Poesia, 1. saria: 150 € material didaktikoa erosteko Poesia, 2. saria: 100 € material didaktikoa erosteko Poesia, 3. saria: 70 € material didaktikoa erosteko  Prosa, 1. saria: 150 € material didaktikoa erosteko Prosa, 2. saria: 100 € material didaktikoa erosteko Prosa, 3. saria: 70 € material didaktikoa erosteko
<b>2. maila:</b>	<b>DBH 1-DBH2</b>	Poesia, 1. saria: 150 € dirutan Poesia, 2. saria: 100 € dirutan Poesia, 3. saria: 70 € dirutan  Prosa, 1. saria: 150 € dirutan Prosa, 2. saria: 100 € dirutan Prosa, 3. saria: 70 € dirutan
<b>3. maila:</b>	<b>DBH 3-DBH 4 Batxilergoa Lanbide Heziketa</b>	Poesia, 1. saria: 200 € dirutan Poesia, 2. saria: 150 € dirutan Poesia, 3. saria: 100 € dirutan  Prosa, 1. saria: 200 € dirutan Prosa, 2. saria: 150 € dirutan Prosa, 3. saria: 100 € dirutan

Sari hauez gain, egoki ikusiz gero, *accessit*-ak ere banatuko dira (diploma eta oparitxoak).



### Lanak aurkezteko bi era daude aukeran

#### A) Paperez, bi gutunazaletan.

**1. gutun-azala: idazlana** sartu behar da (idazlanaren hasieran idatzi beharko da "XXXI Madalen Sariak", zenbagarren maila, prosa edo poesia, izengoitia eta idazlanaren izenburua). Gutun-azalaren kanpoko aldean, izengoitia jarri behar da.

**2. gutun-azala** (1.gutun-azalaren barruan sartuko da): **egilearen datuak**

- Izengoitia
- Idazlanaren izenburua
- Ikastetxearen izena
- Ikasmaila
- Egilearen datu pertsonalak: izen-abizenak, adina, helbidea, harremanetan jartzeko telefono-zenbakia eta korreo elektronikoa

Gutun-azalaren kanpoko aldean, izengoitia jarri behar da.

Oharra: Idazlearen argazkirik ez da sartu behar. Sarituen argazkiak gerora eskatuko ditugu.

#### B) Korreo elektronikoz, bi artxibotan.

[euskara@errenteria.eus](mailto:euskara@errenteria.eus) helbidera bidalitako "Madalen Sariak" gaia duen mezu baten bidez, bi artxibo bidali beharko ditu egileak (.doc, .docx edo .odt luzapena duten dokumentuak soilik onartuko dira).

**1. Artxiboa: idazlanaren izenburua:** dokumentuaren hasieran idatzi beharko da "XXXI Madalen Sariak", zenbagarren maila, prosa edo poesia, eta izengoitia. Ondoren, idazlanaren izenburua eta idazlana bera agertuko dira.

**2. Artxiboa: Izengoitia:** datu hauek idatziko dira:

- Izengoitia
- Idazlanaren izenburua
- Maila
- Ikastetxearen izena
- Ikasmaila
- Egilearen datu pertsonalak: izen-abizenak, adina, helbidea, harremanetan jartzeko telefono-zenbakia eta korreo elektronikoa

Oharra: Idazlearen argazkirik ez da bidali behar. Sarituen argazkiak gerora eskatuko ditugu.

### Epaimahaia

Udalak epaimahaia izendatuko du eta epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Literatura-lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriekin bat egitea dakar. Oinarri horietan aurrekusi ez diren gertaera guztiak epaimahaiak ebatziko ditu.

Sariak eman gabe geratu ahal izango dira, aurkeztutako lanek ez badute eskatzen den kalitate-maila.

### Non aurkeztu lanak

Errenteriako Udalaren Erregistro Orokorrean, edo [euskara@errenteria.eus](mailto:euskara@errenteria.eus) korreo elektronikoa.



### **Aurkeztutako lanen jabetza**

Saritutako lanak Udalaren jabetzakoak dira, eta Udalak argitaratu ahal izango ditu.

Saritu gabeko lanak eta dagozkien pliak ez dira itzuliko, eta suntsitu egingo dira literatura-lehiaketako irabazleak iragarri ondoren.

### **Lanak aurkezteko epea**

2018ko apirilaren 13a, ostirala, eguerdiko 14:00ak arte.

### **INFORMAZIOA:**

*Udal Hizkuntza Politika Departamentua*

Tel.: 943 44 96 13

e-maila: [euskara@errenteria.eus](mailto:euskara@errenteria.eus)